

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

azaroaren 23tik abenduaren 3ra

ELGOIBARREN EMAN ETA ERAGIN DUENAREN BALORAZIOA

EUSKARALDIA: 11 egun euskaraz ariketa sozialak Elgoibarren izan duen eraginaren lehen balorazioaren ideia nagusiak jaso ditugu dokumentu honetan. Balorazio honek bi iturburu dauzka:

- 1. Elgoibarko Euskaraldia Taldeak egin duen balorazioa.*
- 2. Galdetegiko erantzunen emaitzak.*

1. Elgoibarko Euskaraldia Taldearen balorazioa:

- Euskaraldia ekimena jendearengana heltzea lortu dugu, eta ariketak elgoibartarron onespena jaso du. Jendeari gustatu zaio Euskaraldia ariketak proposatutakoa.*
- Elgoibartarron hizkuntza-kontzientzietan eragitea lortu dugu, eta gure hizkuntza-ohituren gainean gogoeta egiteko ere balio izan du Euskaraldiak. Gogoetak eta hausnarketak bi planotan izan dira: plano pertsonalean norbanako bakoitzak egin duena, eta baita taldeetan egin direnak ere (familietan, lantokietan, kuadrilletan...).*
- Elgoibarren 1.804 lagunek eman zuten izena Euskaraldia ariketan parte hartzeko, eta hori asko da. Talde Eragilean ez genuen horrelakorik aurreikusten.*
- Helburu horiek, besteak beste, Euskaraldia ariketarekin bat egin duten herriko 54 elkarte eta erakundeen artean izan den elkarlanari eta parte-hartzeari esker lortu dira.*

Lorpenekin batera, baina, identifikatu eta jaso dugu zuzendu edota hobetu beharreko hainbat kontu.

- Ahobizi eta belarriprest rolak ondo ulertu ez diren errezeloa daukagu. Norberaren jarrera edo jokaerari lotuta daude bi rolak, baina hizkuntza-gaitasunari lotuta ikusi ditu jende askok. Ez dugu mezua ondo jendarteratzen asmatu.*
- Ahobizi eta belarriprest txapak guk nahi baino gutxiago ikusi ditugu. Ariketaren marka dira txapak, ariketa ikusgarri eta errazago egiteko, baina behar baino gutxiago bistaratu diren sentsazioa daukagu.*

- Ez dakigu zer neurritan barneratu duen jendeak Euskaraldia ariketa soziala zela. Hizkuntza-ohiturak euskararen aldera mugiarazteko ariketa bat da Euskaraldia, eta ez euskararen alde gaudela erakusteko ekimena. Jendearen formazioari eta ariketaren alde kualitatiboari arreta handiagoa eskaini behar genion beharbada.
- Amaitzeko, badaukagu gazteen parte-hartzearen gaineko kezka. 16 eta 30 urte arteko 308 gaztek parte hartu zuten ariketan (parte-hartzaileen % 17), eta kopuru hori baino altuagoa lortzea zen gure nahia.

Edozein modutan, eta hutsuneak hutsune, Elgoibarko Euskaraldia Taldeak egiten duen balorazioa oso positiboa da. Hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabilera areagotzeko inoiz sortu eta egin den ariketarik jendetsuena eta arrakastatsuenaren izan da, batere zalantzarik gabe, eta argi daukagu ariketak ondorio asko eta onak lagako dituela elgoibartarrok eta Elgoibar euskalduntzeko ibilbidean.

2. Galdetegiko erantzunen emaitzak:

Elgoibarren izena eman zutenei zazpi galderako galdetegi txiki bat bidali genien, eta 330 lagunek erantzun dute. Galdetegian jasotako garrantzitsuena jaso dugu:

- % 88 gustura sentitu da ariketak iraun duen 11 egunetan. % 12k bakarrik izan ditu nekeak edota beldurrak.
- % 80k beti edo gehienetan eraman du txapa soinean eta bistan. % 20ri, berriz, dezentetan ahaztu zaio txapa jartzea.

Ahobizi rola aukeratu zutenen artean:

- % 83k euskaraz egin die euskaraz ulertzen duten denei edo ia denei. % 17k, berriz, batzuei bai baina beste batzuei ez.
- % 76k euskaraz egin die lehen hitza ezezagunei. % 24k batzuei bai baina beste batzuei ez.

Belarriprest rola aukeratu zutenen artean:

- % 74k euskaraz dakitenen artean, gehienek euskaraz egin dietela aitortu dute. % 26k, berriz, esan du lehendik egiten zietenak edo batzuek bakarrik egin dietela euskaraz.
- % 56k esan egin die beraiei euskaraz egiteko gaztelaniaz zihardutenei. % 35ek, berriz, dio txaparekin nahikoa zela eta ez zietela ezer ere esan gaztelaniaz egiten zietenari.



Amaitzeko, galdetegia bete dutenen artean, % 83k uste du hemendik aurrera euskaraz gehiago egingo dutela Euskaraldia ariketari esker.

Galdetegia bete dutenek egindako komentarioen aukeraketa txiki bat ikusiko dugu jarraian:

- Euskal hiztuna izan eta belarri prest txapa eramateak harridura sortu du nire inguruan, eta, kasu batzuetan, 2. mailako euskalduna sentiarazi naute.*
- Badakit nortzuk diren belarriprest, hurrengoan topo egiten dugunerako. Txapa egunero eraman beharko genuke.*
- Txapa eraman duten askok beraien artean gaztelaniaz hitz egiten zuten. Ahoa betetzen zaigu eta txapa bistan jartzen, baina gero gaztelaniara jotzen dute edo dugu. Triste da, baina hori da nik ikusi dudana.*
- Konturatu naiz ezezagunekin euskaraz indarrez hasi eta jarraitzeko balio izan didala. Konfiantza handiko jende erdaldunarekin, ordea, oso zaila egin zait hizkuntza edo komunikazio-moldea aldatzea. Hala ere, saiatuko naiz hemendik aurrera ahobizi rola gehiago lantzen.*
- Parte hartutako guztiak zoriondu nahi nituzke eta haien esfortzua goraiatu. Gora gu!!! Beste alde batetik, pena da baina iruditzen zait batek baino gehiagok posturo hutsagatik edo "mobidatik kanpo" ez geratzeagatik hartu duela parte. Behin baino gehiagotan gertatu zait bi pertsona ahobizi txapa jantzita elkarrekin gaztelaniaz hitz egiten ikustea. Beste batzuei, berriz, txapa gainean zutela "gogorarazi" arren gaztelaniaz jarraitzen zuten.*
- Txapa ez zeramaten asko ez ditut sentitu ariketan parte hartzeko gogoarekin; horiekin kostatu egin zait eta askotan ez dut bete ahobizi rola.*
- Zaila da betidanik gaztelaniaz hitz egiten duzun pertsonekin euskaraz aritzea. Ohitura kontua da, eta ez da erraza hori aldatzea. Horrelako ariketek lagunduko dutela uste dut. Beraz, mila esker guztiagatik.*



Balorazioa amaitzeko, Elgoibarko datuak ekarri ditugu taula batera:

ELGOIBAR			
1.803 (ahobizi: 1.245, belarriprest: 558)			
Emakumezkoak		Gizonezkoak	
1.115	% 62	688	% 38
Adinaren arabera			
		Ahobizi	Belarriprest
16-30 urte	308 (% 17)	244	64
31-50 urte	864 (% 48)	624	240
51- ... urte	631 (% 35)	377	254
	1.803	1.245	558

Bigarren edizioa 2020an: hori, EUSKARALDIA: 11 egun euskaraz ariketa sozialaren estreinako edizioak eman duenaren lehen balorazioa. Izango dira balorazio gehiago aurrerago, baina, poliki-poliki bada ere, bigarren edizioari begira jarri behar dugu. 2020an izango da Euskaraldia ekimenaren bigarren edizioa. Ahobizi eta belarriprest dinamikan oinarrituko da, lehen edizioan bezala, eta norbanakoen eta entitateen hizkuntza praktika berriak bultzatzeko izango da. Norbanakoekin batera, entitateak, erakunde publiko eta pribatuak, herrietako elkarteak edota enpresak izango dira, besteak beste, bigarren edizioko protagonistak.

